



Across the Sahara



AURKIBIDE

KOKAPENA.....	2
INSTALAZIOAK	3
JARDUERAK	4
TXANGOAK	5
PREZIOAK ETA TXANDAK	5
OHIKO GALDERAK	6
OSASUN-PROTOKOLOA.....	7
KOMUNIKAZIO PROTOKOLOA.....	7
EGOKITZAPEN-DINAMIKAK	9
PRESTA DEZAGUN MOTXILA.....	9
TALDEAK	10
BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK.....	11
HARREMANA.....	11

MOLÍ DE LA RIERA

KOKAPENA

Molí de la Riera etxea Vic-eko lautadan (Bartzelona probintzia) kokatutako Sant Pere de Torelló herrixkaren kanpoaldean dago. Etxea landa-ingurune batean dago, artadiak eta ibaiertzeko landareak dituen baso batez inguratuta.

Ondoan Ges ibaia dago, zeinak, antzina, etxeari izena ematen dion errota mugiarazten zuen. Ibaiko ura gardena, lasaia eta sakonera txikikoa denez, udan uretan sartzeko gogoia ematen du.



Etxera iristeko, lehenik, Sant Pere de Torelló herrira joan behar da, BV-5224 errepidetik. Bertara iristean, herria zeharkatu behar da, kale nagusitik. Herriaren irteeran, Oloterako bidean, eskuineko errepidea hartu. Hortik aurrera, etxera eta Cool Off-era nola iritsi adierazten duten kartelak aurkituko dituzue. 300 metro eskasera, zubi bat igaro ondoren, ezkereranzko desbideraketa bat aurkituko duzue, behar bezala seinalatuta. Han bertan, autoak uzteko aparkaleku bat duen zabalguneko bat aurkituko duzue. Metro batzuk oinez eginda, etxera iritsiko zarete.



INSTALAZIOAK

Etxea berrituta dago eta instalazioak modernoak eta seguruak dira. Gainera, finkak mota guztietako jarduera programatuak egiteko espazio egokiak ditu: igerilekua, futbol-zelaia, saskibaloi-pista, baso-eremu bat eta muino bat, zabalgunek bat, itzal-eremu bat ibaiaren aurrean eta erabilera anitzeko barneko areto batzuk.



JARDUERAK

Kanpalekuetan, ez gara gelditzen! Denetariko jarduerak egiten ditugu, beti bezala, ardatz tematiko batekin lotuak, eta, horrez gain, lantegiak, ur-jolasak, gau-jolasak, ingelesa hobetzeko jarduerak eta abar egiten ditugu.

Hemen, Cool Off egun bat nolakoa den ikus dezakezue:

08:00	<i>Buenos días</i> abestia entzun, eta denak kanpora irteten gara
08:15	Jolas labur bat egiten dugu, esnatzeko
08:30	Aurpegia garbitzen dugu eta jantzi egiten gara
08:45	Gosaltzen dugu
09:30	Logelak txukuntzen ditugu eta, lehiaketa-jolas baten bidez, eguneroko zereginak egiten ditugu (aste osoan zehar errepikatzen dugu)
10:00	Inside Out (hiztegia eta gramatika praktikatzen ditugu Travel Guideekin)
11:00	Aire zabaleko jolasak edo txangoa egiten ditugu goizez (iraupena: 2 ordu)
12:00	Igerilekura joaten gara!
13:00	Prestatu ditugun abestia eta dantza praktikatzen ditugu
13:30	Bazkaltzen dugu
14:30	Denbora librea dugu
16:00	Aire zabaleko jolasak eta eskulanak egiten ditugu
17:00	Meriendatzen dugu
17:30	Aire zabaleko jolasak eta eskulanak egiten ditugu
18:30	Abestiak eta dantzak praktikatzen ditugu taldeetan
19:30	Dutxatzen gara eta denbora librea dugu
20:30	Afaltzen dugu
21:30	Staff Performance (antzerkia)
22:00	Jolasak egiten ditugu gauez
22:30/23:00	Lotara joaten gara!

TXANGOAK

Aurten, Sant Ponç-eko urtegiaren egun oso bat emango dugu. Ingurune paregabe horretan, *paddle surf* plantxa erraldoien gainean orekari eusten saiatuko gara. Horrez gain, trebeak izan beharko dugu BusBob-etik ez erortzeko; hau da, uretatik bizkor arrastatzen den platano erraldoitik. Esperientzia ezin zirraragarriagoa da! Molí de la Rieran dugun ingurune zoragarriari ere etekina ateratzeko, goiz batean ibairako espedizio bat egingo dugu, esploratzaile ausartenek egiten dituztenen parekoa. Han, txirrista natural batzuk izango ditugu zain!



PREZIOAK ETA TXANDAK

Molí de la Riera - 765 €/txanda

- TXANDA: ekainaren 22tik 28ra
- TXANDA: ekainaren 29tik uztailaren 5era
- TXANDA: uztailaren 6tik 12ra
- TXANDA: uztailaren 13tik 19ra
- TXANDA: uztailaren 20tik 26ra

OHIKO GALDERAK

Zein dira harrera eta jasotze ordutegiak?

Igandea da kanpalekuetara **iristeko eguna**. Harrera-ordutegia 17:00etatik 18:00etara artekoa izango da. Partaideen lehenengo abizenen ordena alfabetikoaren arabera egingo da harrera.

- A-F hizkiekin hasten diren abizenak: 17:00etan
- G-N hizkiekin hasten diren abizenak: 17:20an
- O-Z hizkiekin hasten diren abizenak: 17:40ean

Larunbata da kanpalekuetatik **irteteko eguna**. Etxean egongo gara zuen zain 17:00etatik 17:30era bitartean.

Familiek duzue zuen seme-alabak kanpalekuetara ekarri eta bertan jasotzeko ardura. Sartzeko txandak esleituko dizkizuegu, erregistratzeko orduan alferrik itxaron behar ez izateko, baina ez irteteko, izan ere... [agur-festa](#) bat egingo dugu!

Kanpalekuaren lehenengo egunean agiriren bat eraman behar da?

Bai, lehenengo egunean hauxe ekarri beharko duzue:

- Osasun txartel originala (ezin du fotokopia izan)
- Botikak emateko baimena (beharrezkoa bada)

Erregistratzerakoan entregatu agiriak hori.

Gure seme-alabaren begiralea ezagutu ahal izango dugu?

Haurren sarrera formalizatu ondoren, taldearekiko topalekura beraiekin joan zaitezke. Han, begiralea ezagutu eta labur hitz egin ahal izango duzue; hori bai, ingelesez!

Begiraleek ingeles hutsean hitz egiteko agindua dute. Hizkuntza horretan komunikatzeko zailtasunak baldin badituzue eta informazio garrantzitsuren bat eman behar baduzue, zuzendariarengana jo dezakezue. Berak helaraziko dizkio zuen iruzkinak begirale-taldeari.

Etxea ikusterik izango dugu?

Zuek iritsi aurreko orduetan, begirale-taldea etxea prestatzen aritzen da, zuek joan bezain laster egingo diren jolasetarako beharrezkoa den materialaz hornitzeko. Beraz, tamalez, ezingo dizuegu barrualdea erakutsi. Hala ere, [El Molí de la Rieraren webgunean](#) dagoen tour birtuala egitea proposatzen dizuegu.

Noiz arte geratu gaitzke etxean?

Agiriak entregatu eta seme-alabak agurtu ondoren, irteerara joan eta etxetik atera beharko duzue. Haurrak ondo egokitzea sustatzeko modurik onena agur labur eta positiboa egitea da, berehala kanpalekuen dinamikan murgildu eta lagun berriak egiten has daitezen.

OSASUN-PROTOKOLOA

Partaideak kanpalekuetan botikaren bat hartu behar badu, zer egin behar da?

Izen-emate prozesuan, familiei botikak emateko baimena betetzeko aukera eman zitzaizuen, Cool Off kanpamentuetan parte hartzeko lege-baldintzen parte gisa. Agiri horiek garaiz bidaltzerik izan ez baduzue, baimen horren kopia bat emango zaizue, erregistratzeko orduan betetzeko. Orri horretan, botika zenbateko maiztasunarekin eman behar zaion eta zein dosi adierazi beharko duzue, haurraren tutoreak sinatu beharko du eta mediku-errezeta originala erantsi beharko duzue.

Kanpamentuko lehenengo egunean botika zuzendariari eman ahal izango diozue (ikaslearen izena jarrita), berak gorde eta zuen jarraibideen arabera eman diezaion. Partaideek ezingo dute inola ere beren motxiletan eta logeletan botikarik gorde eta eduki, segurtasun eta osasun arrazoiengatik.

Zer egingo dugu kanpamentuen garaian partaide bat ondoezik edo gaixo badago?

Kasu horietan, haurra medikuarenera eramango dugu eta familiari deituko diogu, egoeraren berri izan dezan.

OSASUN-GUNEAK: MOLÍ DE LA RIERA

El Molí de la Riera etxera iritsi baino kilometro eskas bat lehenago, Sant Pere de Torellóko osasun-zentroa daukagu (eguneko arreta ematen du); etxetik 4,5 kilometrora, berriz, Torellóko osasun-zentroa (24 orduko arreta ematen du).

Arreta jaso ondoren, medikuak zer esan duen eta botikaren bat agindu zuen jakinaraziko dizuegu.

Zer informazio eman behar diozue Cool Off taldeari?

Begirale-taldeak eta zuzendaritzak haurraren egunerokoarekin lotutako edozeren berri izan behar du (intolerantziak, alergiak, ohiturak, gaixotasunak, gizarte-berezitasunak, etab.). Gauza horiek jakinarazi egin behar dira, partaideak eroso egoteko ez ezik, badaezpadako neurriak hartzeko eta arreta gehiago jartzeko, beharrezkoa bada.

Familiek, izena ematen duzuenean, alderdi horien berri eman behar duzue, edo, bestela, zuzenean zuzendariari jakinarazi diezaiokozue. Horrela, begirale-taldeak eta zuzendaritzak egoera modu pertsonalizatuagoan tratatu, behar diren neurriak hartu eta beharrezkoa bada erreakzionatzeko aukera daukate.

KOMUNIKAZIO PROTOKOLOA

Kanpamentuak zer moduz doazen eta gure seme-alabak ondo dauden jakin ahal izango dugu?

BLOGA: Egunero, talde bakoitzak Cool Off blogean argitalpen bat egiteko tarte bat hartuko du. Gainera, zuzendaritza-taldeak iruzkinak jarriko ditu. Atal horretan, etxean egiten diren

jardueren argazkiak eta iruzkinak ikusi ahal izango dituzue, baita bestelako informazio interesgarria ere.

Kanpamentuetako lehenengo eguna amaitzean, mezu elektronikoen baten bidez blogera sartzeko esteka bidaliko dizuegu, baita zuen erabiltzaile-izena eta pasahitza ere, baina argitalpenak egiten bigarren egunean hasiko gara.

Erabiltzaile gisa, egunero eguneratuko diren argitalpenetako edozeinetan iruzkinak egin ahal izango dituzue, beti partaidearen izen-abizenak zehaztuta, guk haiei iruzkinak erraz irakurri ahal izateko. Cool Off taldeak hori egindakoan, zuen iruzkina argitaratuko da. Horrela, zuen seme-alabak irakurri duela jakingo duzue.

MEZU ELEKTRONIKOA: Gau horretatik aurrera, egunero, haur guztiak lotara joan eta zuzendariak begirale-taldearekin lehen jarraipen-bilera egin ondoren, mezu elektronikoen baten bidez, gure haurrek egun horretan egin duten guztiaren berri emango dizuegu, eta egun osoan egin ditugun argazki eta bideoen karpeta pribaturako esteka.

INSTAGRAM: Baina hori ez da guztia! Horrez gain, Instagrameko argitalpen eta istorioetan ere ikusi ahal izango duzue gure partaide ausartak zer egiten ari diren, eguneko mezua iristeko zain zaudeten bitartean. Irudiak sare sozialetan erabiltzeko baimenik eman ez bazenuten, zaudete lasai; ez da zuen seme-alaben argazki edo bideorik argitaratuko.

Hemen jarraitu gaitzakezue: [@cooloffbykidsandus](https://www.instagram.com/cooloffbykidsandus)

Etxera deitu daiteke?

Familiek etxearekin harremanetan jarri nahi baduzue, 12:30etik 13:30era egin dezakezue, 602 25 20 95 telefonora deituz (Cool Off-eko zuzendaritzaren telefonoa). Kontuan izan une horretan arreta ematerik ez badugu jarduera edo egoeraren batean laguntzen ari garela dela. Dena den, ahal bezain laster deituko dizuegu.

Zer edo zer dela eta, etxearekin harremanetan jartzeko premia baduzue, 24 orduetan egin ahal izango duzue, telefono berera deituta.

Hala ere, zuen asmoa zuen seme-alaba zer egiten ari den eta nola dagoen jakitea bada, onena kanpamenduen bloga kontsultatzea da.

Era berean, zuzendariak zerbait kontsultatu behar baduzue, zuekin harremanetan jarriko da testu- edo audio-mezu baten bidez, eta, kontsulta premiazkoagoa bada, zuzenean deituko dizue.

Gure seme-alabarekin telefonoz hitz egin dezakegu?

Ez dago aurreikusita haurrak eta familiak telefono bidez komunikatzea. Gure ustez, ez dira egun asko, eta telefono bidezko harremanak nostalgia edo larritasuna eragin diezaieke ikasleei zein familiei. Gainera, telefonoz hitz egiteak une horretan egiten ari diren jardueran parte hartzeari uztea eta talde-dinamikak etetea dakar.

EGOKITZAPEN-DINAMIKAK

Zer gertatzen da parte-hartzaile bat kanpalekuetara egokitzen ez bada?

Printzipioz, neska-mutil guztiak taldean integratzeko eta egokitzeko pentsatuta dago programa. Hain zuzen ere, lehen egunetan talde-kohesioari berariaz eskainitako hainbat jarduera daude. Baliteke parte-hartzaile batzuek integratzeko zailtasun handiagoak izatea beste batzuek baino, batez ere kanpaleku batzuetara joaten diren lehen aldia bada. Guztiz normala da. Begirale-taldeak kanpamendu hauetara egokitzearekin lotutako alderdi guztiak behatuko ditu, eta bere iritzia zuzendariarekin partekatuko ditu gauero. Zuzendariak egoera baloratuko du, eta guztien artean eskura dituzten baliabide guztiak erabiliko dituzte, neska-mutil guztiak gustura eta eroso senti daitezen ahalik eta azkarren.

Hala ere, parte-hartzaileraren batek familiaren falta izango balu, taldeak ahal duen guztia egingo luke laguntzeko. Hala eta guztiz ere, zentzuzko denbora baten ondoren, egoerak hobera egingo ez balu, taldea familiarekin harremanetan jarriko litzateke, egoera elkarrekin baloratzeko.

Bada katalanez edo espainieraz hitz egingo duen inor?

Lehen esan bezala, begiraleek ingelesez bakarrik hitz egin dezakete. Eta hurrek ez lukete jakin behar beste hizkuntza bat ulertu edo hitz egiten duten. Hala ere, parte-hartzaileek beren mailaren arabera ahalik eta ondoen hitz egin dezaten laguntzeko behar den esperientzia dute guztiek. Gainera, bada behar izanez gero katalanez edo espainieraz hitz egingo duen erreferentziazko pertsona bat: zuzendaria.

Begiraleek gai garrantzitsu bat komunikatu behar dutenean edo jarraibideak ondo ulertu dituztela ziurtatu nahi dutenean (hala nola segurtasun-gaiak edo funtsezko beste alderdi batzuk), pertsona horrek bitartekari-lanak egingo ditu.

PRESTA DEZAGUN MOTXILA

Zer sartu behar da motxilan?

Kanpamenduetan erabilgarri izan dakigukeen guztia kontuan hartuta, egunerokorako beharrezkotzat jotzen ditugun gauzen zerrenda prestatu dizuegu. Kontsulta ezazue kanpalekuan izena ematean jasoko duzuen «Presta dezagun motxila» dokumentua.

Argazki-kamerarik eraman al dezakete?

Ezin da argazki-kamerarik eraman. Cool Off-eko taldeak ditu kamerak, neska-mutilen egunerokoaren lagin bat erregistratzeko. Egunerok, egunean egindako argazki guztiak bildu, posta elektronikoz bidali eta batzuk blogean jarriko ditugu.

Arropa-garbiketa zerbitzurik badago?

Etxean ez dago arropa-garbiketa zerbitzurik. Horregatik, «Presta dezagun motxila» atalean egiten ditugun gomendioak kontuan hartu behar dituzue.

Dirua eraman behar dute?

Parte-hartzaileek ezin dute dirurik eraman. Antolatzaileek behar den guztia ematen dute hurrek kanpamenduez goza dezaten janaririk eta edaririk erosi behar izan gabe.

Jatekorik edo litxarreriarik eraman dezakete?

Motxiletan ezin da janaririk edo litxarreriarik eraman. Parte-hartzaileraren batek behar puntualen bat badu (gose edo egarri handiagoa, eta abar), erreferentziako begiralearengana jo ahal izango du, eta hark zuzendariarekin kontsultatuko du.

Telefonoak, tabletak, MP3ak... eraman ditzakete?

Ezin da gailu elektronikorik eraman. Kanpamentuak guztion arteko komunikazioa eta bizikidetzaren sustatzeko pentsatuta daude, eta, gure ustez, horrelako gailuek ez dituzte sustatzen; are gehiago, gatazka iturri ere izan daitezke. Begiraleren batek horrelako gailuren bat aurkitzen badu, zuzendariari emango dio, eta hark haurra jasotzeko egunean itzuliko dio familiari.

Botikak eraman ditzakete?

Hurrek ezin dute motxiletan inolako botikarik eraman edo gorde. Zuen ustez haurrak, badaezpada, sendagairen bat eskura izan behar badu, kanpamentuetako uneren batean behar badu hartzeko, zuzendariari jakinarazi beharko diozue. Hark egoera kontrolatuko du eta sendagaia gorde eta beharrezkoa izanez gero eman behar duen begiraleari informazioa eta jarraibideak emango dizkio.

TALDEAK

Nola egingo dira taldeak?

Izena emateko prozesuaren hasieran azaldu dizuegun bezala, taldeak adinaren, lagunaren eta ingeles-mailaren arabera egiten dira, ordena horretan. Txanda batean izena eman duten parte-hartzaileen informazio guztia bildu ondoren, erregistro bakoitza berrikusiko da, gehienez 10 hurreko talde orekatuak sortu ahal izateko. Talde horren barruan, familia-giroan biziko dira, eta eguneroko jarduerak elkarrekin egingo dituzte, hala nola otorduak, jolasak edo txangoak.

Beste talde batzuekin harremanetan egon ahal izango dira?

Bai. Parte-hartzaileek etengabe partekatuko dituzte espazioak eta jarduerak beste taldeetako gainerako hurrekin. Hain zuzen ere, 10 partaideko talde txikiak sortu ondoren, jarduerak beren taldearekin edo adinari dagokionez hurbilen dituzten bi taldeekin egingo dituzte. Talde horiekin geletan ere elkartu daitezke, logelaren edukieraren arabera. Horrek talde-sentipena indartzen lagunduko die eta astean zehar sentipen hori elikatzen joango da.

Gainera, egunero, une jakin batzuetan, txandako gainerako talde parte-hartzaileetako haur guztiekin aisialdiaz gozatzeko aukera izango dute.

BESTE GAI INTERESGARRI BATZUK

Nola esleitzen dira logeletako plazak?

Logelak adinaren, taldearen eta gela bakoitzeko plazen arabera banatzen dira, neskak eta mutilak bereizi gabe. Adinez nagusien diren taldeen kasuan, gelak mutilak eta neskak bereizita banatuko dira.

Dutxatzeko garaian, talde guztietan neskak eta mutilak bereiziko dira, eta konketen eremuan begirale bat egongo da, gorabeherarik ez sortzeko.

Igerilekuan soroslerik ba al dago?

Igerilekuaren neurriak direla-eta, ez da beharrezkoa soroslerik izatea. Hala ere, segurtasun-arrazoiak direla medio, bertan jarduerarik egiten ez dugunean igerilekua itxita egongo da. Haurrek beren begiralearekin bakarrik sartu ahal izango dute bertara, beraz, beti heldu baten gainbegiradapean egongo dira. Berak zainduko du igerilekua bertan partaideak dauden bitartean. Begiraleek, era berean, igerilekua kanpotik eskusiboki zaintzeko txandak egingo dituzte.

HARREMANA

Edozein zalantza argitu edo kontsultak egiteko, zuzenean asteko zuzendariarengana jo dezakezue, posta elektronikoz (moli.cooloff@kidsandus.es) edo telefonoz, 602 25 20 95 zenbakira deituz (Cool Off-eko zuzendaritzaren telefonoa).

Kanpalekuei buruzko galdera orokorrak izanez gero, antolakuntzarekin jar zaitezketen harremanetan, posta bidez (admin.cooloff@kidsandus.es) edo telefonoz, 629 16 11 49 zenbakira deituz (Vanessa).



ESKERRIK ASKO!